




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2006 ENE : 02
	Zk. / N.º 1117
FECHA EXP.	07/C/12/1132

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, **ARALAR** taldearen batzarkideak, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jardueraren Araudiari jarraiki, idatzi honen bidez **Mutrikun, Portuaren Plan bereziari buruzko Herri Kontsulta** egiteko **EZ – ARAUZKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **urgentziazko izaeraz** Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Mutrikuko Portuko Plan Bereziak, herrian eztabaida zabaldu du. Herritarrek kezkatuak daude, eta herritarren artean ezinegona eta konfrontazioa sortu du.

Jakina da, Mutrikuarrak betidanik eskatu izan dutela porturako sarbidea erraztuko lukeen babes moila, segurtasun neurriengatik. Baina gauza bat da babes moila eta beste gauza bat, babes moila aitzakitza harturik gaur egungo portu, hondartza eta itsas labarrari eragingo dion, eta exekutatu nahi den “Portuko Plan Berezia”.

Proiektu horrek, Mutriku herriaren izaera eta nortasuna eraldatuko ditu, bueltarik izango ez duten ondorioak eraginez: ingurumenean, arlo sozialean eta ekonomikoan. Jakina da, gaur egungo hondartza Mutrikuko altxorra dela, hots, kanpotarrek hondartzak dituen ezaugarri bereziengatik aukeratzen dutela Mutriku, eta ez beste herri bat edo eta hondartza bat. Proiektu berrian betiko hondartza desagertu egiten da, eta hondartza artifizial bat ezarriko da. Eta ez hori bakarrik igerilekuko ingurune osoa desagertu egiten da, baita gaur egungo babes moila ere. Zer gertatuko da turismoarekin? Zer gertatuko da hirugarren sektorearekin? Jakina den bezala arrantzak duen gainbera herrian. Beraz, zein helbururekin nahi da eraiki kanpoko portua? Zein jarduera ezarri nahi dira?

Zer esanik ez, arestian aipatu dugun bezala, ingurumenean izango lukeen eragin konponezina. Ingurumenarekin jarraituz, ezin dugu aipatu gabe utzi, plan berezi horren barnean dauden atal guztiek ez dutela ingurumen inpaktuari dagokion prozedimendu legala pasatu. Bere garaietan, babes moilak bakarrik iragan zuen tramite hori, eta ez gaur egun exekutatzea pentsatzen den Portuko Plan Bereziak. Zoritxarrez, Mutrikuko ondare naturalaren desagertzearen aurrean gaude.

Guzti hori gutxi balitz, Mutrikuko Portuaren Plan bereziari dagozkion obrak dagoeneko hasi dira exekutatzen. Konkrétuki obra horiek epez kanpo, baimendutako epea pasa ondoren hasi zituzten Ingurumeneko ministeritzatik 2004ko urriak 20an bidalitako adskrizio informeari muzin eginez.

Ingurumenaren esparrua, duen interes publikoagatik, bertan hartzen diren erabakiak legitimitate handiagoa izan behar dute eta herritarren iritzia kontuan hartuak eta eztabaida sozialean oinarrituak izan behar dira, iritzi eta sentsibilitate desberdinen



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

artean alderatua. Eta ez soilik politikarien borondatean oinarrituak. Rio de Janeiroko bilkuran (1992an) garbi geratu zen, eta harrezkero berretsi egin da komenio eta legedi desberdinen bidez “ingurumen demokrazia”. Aarhuseko komenioa eta 2003/35/Ceko direktibak, ingurumeneko erabakietan herritarrei paper garrantzitsua ematen die, Rioko bilkuran ezarritako oinarriari jarraikiz.

Horregatik guztiarengatik, “Portuko Plan Bereziak” Mutrikun izango duen eraginagatik, ezinbestekoa deritzogu herritarrei horri buruzko herri galdeketa egitea, beraien iritzia kontuan hartua izan dadin, eta zer esana izan dezaten beraien herriaren eraikuntzan eta etorkizunean

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek dei egiten diote Mutrikuko udalari, Portu berriaren Plan bereziari buruzko herri kontsulta egin dezan.

URGENTZIAREN JUSTIFIKAZIOA

Mutrikuko Portuaren Plan bereziari dagozkion obrak dagoeneko hasi dira exekutatzan. Konkretuki obra hauek epez kanpo, baimendutako epea pasa ondoren hasi zituzten Ingurumeneko ministeritzatik 2004ko urriak 20an bidalitako adskrizio informeari muzin eginez. Horregatik, Proiektu horrek, Mutrikuko herriko ingurumenean, ekonomian eta arlo sozialean izango duen eraginagatik beharrezkoa deritzogu gai hau lehen bai lehen tratatzea, beranduegi izan baino lehen.

Donostian, 2006ko urtarrilak 2

Rebeca Ubera Aranzeta
ARALAR BATZARKIDE TALDEA